


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urriaren 18a

*



Nafarroako ondarearen egoera ezbaian

■ Joan den astean egunkari honetan bertan ikusi eta irakurri ahal izan genuen Aralarko San Migelen baseliza zein egoera tamalgarrian dagoen. Baina ez da bakarra. Uxuetik ere badatoz azkenaldian kexuak, herriko eliz-gaztelua pairatzen ari den egoera salatuz. Nafarroa osoan hain ezagunak izanik, harrigarria gertatu zaio askori Nafarroako

ondare artistiko eta historikoaren zati diren eraikin hauei buruz halako berriak jasotzea. Polemika piztu dute, garai batean Iruñeko Erret Jauregiaren zati baten eraispenak piztu zuen bezala. Eta horretan dirau. Adibide zehatz hauetatik abiatuz, Nafarroako ondasun artistikoaren egoerari buruzko berri eta iritziak jaso nahi izan ditugu. ■

Non ote dago Nikaragua?

Lur deslaia

PILI YOLDI



«Datorren igandean hauteskundeak dira Nikaraguan? Han ba al dago zer edo zer? Non *arraio* dago orain Nikaragua?», galdetu zidaten kalean herenegun.

Benetako iraultza ezagutzeko gure anai zaharrek egindako bidaiak atzean gelditu omen dira, eta apenas aipatzen dituzten, lotsati. Anai gazteentzako Nikaragua ez da herrialde bat, amets galdua baizik, porrotaren sinonimoa: ezkertiarren aberria, diktadore baten aurkako herri borrokaren garaipena, hippien literaturak eraikitako heroiak.

Errez erretzen da herrialde oso baten historia. Anai zaharrak dioenez, sandinistek engainatu gintuzten orain dela sei urteko hauteskundeak galdu zituztenean: 1990eko otsailaren hogeita bosteko gau hartan merezitako zigorra jaso zuten sandinistek, boterea eskuratu eta gero gehiegikeria eta ustelkeriengatik.

Ikusi behar ziren garaipenez eta

alaitasunez betea izan behar zuen gau hartako aurpegiak eta negarrak. Ezinezkoa zirudien.

Violeta Chamorrok eta eskuindarrek irabazi ondoren, esperantzaren aberria izandako lurra internazionalista gehienek abandonatu zuten. Iraultzatik ihesi Miami joandako asko Nikaraguara bueltatu ziren egoerari berriro buelta emateko. Akabo alfabetatze kanpainak, akabo osasun arloan egindako aurrerapenak, akabo askoren esperantza. Estatu Batuen eredu neoliberean berri sartu, eta hasi lehengo beharra, lehengo mixeria, lehengo diru falta eta —toki guztietan bezala— gobernu berriak lehengo gobernuari erruak botatzeko. Denentzako, sandinistak errudun.

Etxera itzuli ziren batzuk sandinismoaren alde borrokatu ondoren esperantzarik gabe etorri ziren. Han gelditu ziren gehienek, sandinismoaren aldeko borrokatik bizirik atera ondoren, ez esperantzarik, ez sosik, ez deus. Jendea

pobre bizi zen baina pobreago bizi da orain. Mixeria ikaragarria. Bluefieldseko andre batek zioen moduan, «alabak putak, semeak narkoak eta senarra... auskalo non, baina dirua ekartzen badute, kontent».

Arnoldo Aleman, Managuako alkate 'liberala' eta sandinisten betiko buru den Daniel Ortega aurrez aurre lehendakaritza eskuratzeko. Fronte Sandinistan gertatu zen zatiketa gairatzeaz gain, irudi irekiagoa lortu nahi du Ortega (*Yankia* ez omen da jadanik Gizatasunaren etsaia) oraindik jarraitzaile asko duela eta. Ekonomiaren egoera larriari aurre egiteko, kanpoko zorra eta kontrolik gabeko inflazioa konpondu behar du gobernu berriak, baita mendian dauden ehundaka soldadu ohien arazo —*recontras* eta *recompas*—. Ez da lan erraza. Nola izango ote dute beti holako *jodedera* umorea?

Hori, datorren igandean, Nikaragua hauteskundeak. X

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Iruñea: Sociedad Alcoholic, Salvate si puedes eta Herensugea taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 18, Sanduzelai auzoko Txokoan. Sarrerak 500 pezeta izanen dira salgai.

Burlata: La orquestina de Faibol folk taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 18, Burlatako Hilarion Eslava Musika Eskolan, eta bihar, hilak 19, Barañaingo Kultur Etxean. Bi kontzertuak ilunabarreko zortzietan hasiko dira.

Gares: Vargas Blues Bandek eta De 2 en Bluesek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 19, Funda Mental aretoan, gaueko hamaiketan. Sarrerak 1.500 pezeta izanen dira salgai.

Burlata: Oñatiko abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 19, San Blas elizan, eta ilunabarreko zortzietatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Beatriz Villegasen *Reminiscencias lorquianas* erakusketa ikusgai izanen da herriko Kultur Etxean gaurtik azaroaren hirura arte.

Iruñea: Alicia Otaegiren *Artefacto* izeneko instalakuntza hilaren 27ra arte ikusgai izanen da Gotorlekuan.

LEHIAKETAK

Iruñea: Narrazio erotiko laburren lehiaketa deitu du Sex Haizegoa dendak. Lanek gutxienez 20 folio eta gehienez 50 eduki beharko dituzte, eta urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Sex Haizegoan bertan (Barañain etorbidea, 29). Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke.

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaleko Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

IKASTAROAK

Iruñea: Autodefentsa ikastaroa izanen da Gaztediaren Etxean heldu den astelehenerdik abenduaren 11ra arte. Ikastaroa astelehenerdik eta asteazkenetan izanen da, ilunabarreko zortzietatik gaueko hamarrak arte.

Iruñea: Aisialdi begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxintxa aisialdi eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren bederatzian hasi eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 21 14 78 telefonora.

Zizur Nagusia: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta ordaindu beharko dira.

nafar kronika

Patxi Larrion

Izanari eutsi

Iraunkorra mugatu dute, edota beste alderditik begiratuta, mugarik gabeko bihurtu zaigu. Lankidetzaren Hitzarmenak zenbait sektore abertzalerengan piztu zuen eztabaida iragana da. Espero zitezkeen bezala Union del Pueblo Navarrok, bere izanari jarraikiz, ezerezean utzi du hiruko Gobernuak Euskal Autonomi Elkartearekin hitzartutakoa. Madrilen erdigunea duen alderdi erregionalistak EAEtik aldentzea du bere sorreraren izana; Aizpun jaunak, lema beti aitzina, fede biziz ekin zion lan horri. Kolore bakarrek politikagintzari aurre egin ez izana da nafar anitzen porrota, iraunkorrarena lehia horren azken pasadizoa dugu.

Iraunkorra da Alliren alderdiak UPNri lege-gintzaldirako eskaini dion akordioa. Antza denez, CDN alderdiari aginte postuetan egotea behar-beharrezkoa zaio. EAren ibilbideak era-

kutsi digunez, botereak bizirik irauteko ahalmena ematen du. CDNk aurkeztu akordioan Lankidetzaren Hitzarmenari eman dion lehentasunak bat baino gehiago harrituko du. Menturaz, kontu hauek guztiak, lagungarri gerta daitezke joan den asteazkenean federalismoaz esandakoak ekarri beharko lukeen eztabaidarako. Bizkitartean, errugabe atera da PSN, Madrildik egin barne ikerketaren arabera. Kontu korronteena pertsona jakin batzuen afera omen da.

Asteak, Sarasaten intsumiso izateko parada eskaintzeaz gain, erantzunik gabeko galdera utzi digu, zer dela eta Eskola Publikoaren Alde eratu den plataforman ez den Sortzen bezalako talderik, non aurkitu horiek bazter uzteko arrazoirik? Sortzen ez da plataforma horretatik kanpo geratu den talde bakarra. Sarasate pasealekuan galdetu behar ote genuke?



asteko pertsonaiak



Josema Leitza
Oinarriak taldeko kidea

■ Josema Leitza bertsolaria ezezik Oinarriak taldeko kidea ere bada. Erakunde horretako bozeramaile gisa, joan den asteartean Nafarroako hainbat gizarte taldek eta kultur elkartek euskararen normalizazioaren alde sinatu zuten agiria aurkeztu zuen foruen monumentuaren aitzinean. Halaber, Euskal Kultur Batzordea Euskal Herria osoan bultzatzen ari den *Eman euskarari berea* kanpainak Nafarroan izanen dituen berezitasunak azaldu zituen.



Juan Cruz Alli
CDNko burua

■ Juan Cruz Alli CDNko presidentea datorren Legegintzaldirako akordioa lortzeko bidea proposatu dio Miguel Sanzen Gobernuari. Allik Euskal Autonomi Elkartearekin Nafarroak sinatuta duen Elkarlanerako Hitzarmen iraunkorra, Gobernu presidentea aukeratzeko indarrean dagoen automatismo legala eta Iruñeko Udalean hiruko Gobernuak duen akordioa errespetatzeko eskatu dio UPNri. Ordainetan, CDNk Parlamentuan Aurrekontuak aurrera ateratzeko laguntza eskainiko dio.

ahaztu gabe!



TRIKI-BERTSO-KALEJIRA

Iruñea: Iturrama auzoko Euskal Herrian Euskarazko taldeko kideek ekintza kulturala antolatu nahi zuten, baina ez zekiten zein. Batek trikiti kontzertua egin nahi zuen, besteak bertso saioa, hurrengoak kalejira, harrak hark euskal poteoa, beste hark txalaparta kontzertua... Azkenean, horiek guztiak batera egitea erabaki zuten. Gauzak horrela, triki-bertso-kalejira poteatzailea izanen da gaur, hilak 19, Iruñeko Iturrama auzoan. Ekintza kaos berritzaile horretan parte hartu nahi dutenek, Amair ikastolan dute hitzordua, arratsaldeko sei eta erdietan. Goiz heltzea komeni da, ekintzaren izenak berak azaltzen duenez, ekintza ibiltaria izanen baita. Trikitilarien laguntzaz Josema Leitza, Iñigo Olaetxea, Nerea Bruño eta Ekintza Landa bertsolariak kantari ariko dira auzoko hainbat taberna bisitatuko dituen euskal kalejiran. Azkenean, kalejira Lopez pilotalekura helduko da, eta horretan, trikitiak eta bertsoak ezezik txalaparta ere izanen da entzungai.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Etxalar

Usategietako jaia prest

Urtero legez, Etxalarko usategietan bilduko dira igandean inguruko herritarrak

Aspaldiko ohiturari jarraiki, Usategietako Igandea ospatuko dute etzi Etxalarren. Herrian bertan hainbat ekitaldi izanen dira Udalak antolatuta. Tartean, Mikel Laboaren erakusketa eta dantzaldia. Usategietan, berriz, usoak sareetan nola harrapatzen dituzten ikustera hurbilduko da jendea egun osoan zehar.

Erredakzioa / Iruñea

ETXALARKO Usategietako Igandea ospatuko dute asteburu honetan, hilaren 20an. Urtero bezala, hainbat ekitaldi prestatu ditu Etxalarko Udalak larunbat eta iganderako. Bi egun hauetan, hain zuzen, Mikel Laboaren argazki, kartel eta materialen erakusketa izanen da ikusgai Eskola Zaharretan. Larunbatean arratsaldeko 5:00etatik 7:00ak arte izanen da zabalik, eta igandean, eguerdiko 12:30etatik 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara.

Igandean bertan, Lesakako Tantarumairu dantza taldearen emanaldia izanen da herriko plazan, arratsaldeko 5:30etatik aurrera. Eta ondoren, 6:30etan, Egan Berria taldearen eskutik, dantzaldia hasiko da gaueko 10:30ak arte.

Baina Etxalarko Udalak antolatutako egitaraua ezezik, azken urteetan bezala herriko gazteek prestatutakoa ere izanen da. Larunbatean, hain zuzen ere, gaueko 10:00etatik goizaldera arte, gaupasa izanen da Potato, Koma eta JFK taldeekin.

Baina Usategietako Igandea izanik, igandekoa eta Etxalarko



Usategietako Igandea ospatuko dute urtero legez etzi Etxalarren.

ARTXIBOKOA

usategietan eginen dena izanen da jai nagusia. Aspaldiko ohiturari jarraiki, Etxalartik bertatik, hala nola inguruko herrietatik —Lesaka, Bera,...— oinez igoko da jendea usategietara. Eguraldiak laguntzen badu, ehiztariek usoak sareekin nola harrapatzen dituzten ikusi ahal izanen dute. Izan ere, batez ere usategietako sareak dira Etxalar herri ezagun bihurtu dutenak. Hamaika aldiz ikusi eta entzun ahal izan dugu mota guztietako komunikabideetan horren berri.

Hori dela eta jaiegun hau Etxalarko herritarrentzat berezia dela onartzen du Udaleko zine-

gotzia den Arantxa Mikelestorenak. Bera izan da aurtan Usategietako Igandeko ekitaldiak prestatzeko ardura bere gain hartu duena. Bere ustez, baina, 60 bat urte dituen besta hau ez da orain garai batean izan zena. Alde batetik, ospatzeko modua ezberdina izan da azken 25 urte hauetan. Ordura arte —aurten bezala—, urriko hirugarren igandean egiten zen Usategietako Eguna, baina aurrekoan eta ondorengoan ere izaten zen dantzaldia herrian. Azken 25 urte hauetan, baina, bigarren eta laugarren igandeko ospakizunak bertan behera gelditu dira.

Bestetik, Arantxa Mikelestorenaren irudikoz, besta honek ez du gaur egun beste garai batean izandako arrakasta. «Gero eta jende gutxiago igotzen da usategietara; azken urteetan, behintzat, halaxe gertatu da». Orain dela lau urte, hain zuzen, usategietara igotzeko ibilbide bat prestatu zuen Udalak, baina oso arrakasta gutxi izan zuen, eta asmo hori bertan behera utzi zuten Herriko Etxeko arduradunek hurrengo urteetan. Dena den, badago urtero-urtero Etxalarko usategietara igotzen denik ere, hainbeste urtetako besta bati jarraipena emanez. X

Zizur Nagusia

Kultur Patronatuak musika eta antzerki zikloak antolatu ditu

Hika antzerki talde gipuzkoarrak 'Easoko ederrak' eskainiko du gaur Kultur Etxean 22.00etan

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO Kultur Patronatuak kultur egitaraua zabaldu prestatu du datozen hilabeteetarako. Musika eta antzerkiaren inguruko ekitaldiak izanen dira gehienak. Gaurtik urtarrilera bitartean, gainera, erakusketa ugari ikusi ahal izanen da Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

Musika zikloari dagokionez, joan den ostiralean hasi zen orri hauetan bertan iragarri bezala, Madagaskarko Rakoto abeslariaren eskutik. Harrera ona eskaini zioten Zizur Nagusiko herritarrek zikloa zabaldu zuen kantari honi.

Gaur, Gipuzkoako Hika taldeak hartuko du lekukoa, eta *Easoko ederrak* obra eskainiko du. Kultur Patronatuak antolatu ekitaldi guztiak bezala, Zizur Nagusiko Kultur Etxean izanen da gipuzkoarren emanaldia, gaueko hamarretatik aurrera. Urriari amaiera emateko, Kubako Septeto Santiaguero ailegatuko da Zizur Nagusira, Euskal Herri osoan egiten ari diren biraren barruan.

Azaroan antzerkia izanen da kultur egitarauan nagusi. Las Pericas Kolektiboak emanen dio hasiera ziklo berri honi hilaren 8an, izen bereko obrarekin. Hi-

laren 15ean, Rayuela Konpainiak *El barbero de Sevilla* klasikoa taularatuko du; 22an, berriz, Tanttakak Raymond Cousseren *Chiquilladas* eskainiko du. Bukatzeko, hilaren 20an, *Xaribal* lana antzeztuko du Teatre Mobil taldeak.

Hil honetan, eta azaroan eta abenduan Kultur Patronatuak prestatu erakusketak ikusi ahal izanen dituzte Zizur Nagusiko herritarrek. Mota askotako lanak ikusi ahal izanen dira Zizur Nagusian bost erakusketatan. Gaur bertan eta azaroaren 3ra bitartean ikusgai izanen den grabatu erakusketa zabalduko du Beatriz

Villegasek. Azaroaren 6an, berriz, Nafarroako Gobernuak prestatu *Euskara, betiko mintzoa* ailegatuko da, eta hilaren 18a bitartean egonen da zabalik. Eta hilaren 22tik abenduaren 8ra bitartean, Carlos Castiellaren akuarelak izanen dira.

Erakusketei amaiera emateko, bi argazki erakustaldi antolatu dituzte: abenduaren 13tik 22ra Peio H.ek transhumantziari buruzko lanak erakutsiko ditu, eta abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean Joxe Lacalle argazkilari eta EGUNKARIKO kolaboratzailearen lanak izanen dira ikusgai. X

Iruñea

Euskal Astea antolatu dute Txantrean

Auzoko euskaltegiaren hamargarren urtemuga ospatuko dute datorren ostiralean

Erredakzioa / Iruñea

TXANTREAKO EUSKARA Taldeak, Axular Ikastolako Gurasoen Elkarteak, AEK-k eta Jai Batzordeak Euskal Astea antolatu dute. Igandean hasi eta datorren larunbatera arte iraungo dute Txantreko Jalegun berezi hauek. Euskal Asteari hasiera emateko, AEKren Egunaekin bat eginen dute antolatzaileek igandean, Donapaleun. Bidaia prestatu dute, nahi duenak parte har dezan.

Astelehenean, berriz, urriaren 21ean, musika tresnen erakusketa izanen da Auzotegin, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Iruñeko Alboari antolatu dute. Bihamunean, urriaren 22an, Auzotegi Kultur Etxean ere bai, diapositiba emanaldia izanen da Himalayari buruz. Txantrea Mendi Taldeak antolatu du ekitaldi hau.

Asteazkenean, bestalde, goizeko bederatzietan Txantrea Irratiaren egoitzan, maingurua izanen da Iruñerriaren euskarak zer etorkizun duen eztabaidatzeko. Beste hainbat lagunen artean, Joxemiel Arregi euskara teknikariak hartuko du parte. Ostegunean ere Auzotegi Kultur Etxea izanen da Txantreko bizilagun gutzien bilgune. Arratsaldeko zortzietan Amaia Zubiriaren hitzaldia izanen da, *Nola euskaldundu gozatuz* izenburupean.

Ostiralekoa egun bete izanen da, eta hainbat ekitaldi izanen dira arratsalde osoan, Txantreko euskaltegiaren hamargarren urtemuga ospatzeko. Lehenik eta behin, arratsaldeko zazpitan, aurkezpena eta euskaltegiaren inguruko bideoaren emanaldia izanen da. Ondoren, zortziak aldera, Txantreko AEK-ko abesbatzak emanaldia eskainiko du, eta azkenik, zortziak eta erdietan, kalejira eginen dute. Sanduzelai Leningrado soinu joleen giroa izanen dute Txantreko euskaltegiaren bildutako guztiek.

Larunbatean ere, urriaren 26an, egitaraua zabaldu izanen da antolatzaileek prestatuta. Piramideen plazan, goizeko hamaiketarik aurrera, ekitaldi ugari izanen da. Lehenik eta behin, *Txantrean euskaraz bizitzea* idazlanen lehia-ketaren sariak banatuko dituzte. Ondoren, txikientzako herri kirolak izanen dira, baita joko eta jolasak ere. Ondoren, hamabiak eta erdiak aldera, Taupada taldea izanen da Piramideen plazan. X

Nafarroako ondare artistikoaren
egoera ezbaian

Ondare hondatua?

Aralarko San Migel, Uxueko eliza eta Iruñeko Erret Juaregia, adibide ezagunak dira

Joan den astean, egunkari honetan bertan ikusi eta irakurri ahal izan genuen Aralarko San Migelen basiliza zein egoera tamalgarrian dagoen. Baina ez da bakarra. Uxuetik datoz orain kexuak, eliz-gaztelua pairatzen ari den egoera salatuz. Nafarroa osoan ezagunak diren bi eraikin hauek ezezik, bada Nafarroan arriskuan den beste hainbat eliza, etxe eta jauregi ere.


Edume Elizondo / Iruñea

«SAN MIGEL erortzen ari da». Esteban Irigoin eta Jose Javier Aizkorbe apaizek joan den astean egunkari honetan alarma gorria piztu zuten hitz horiekin, Aralarko San Migelen basilizaren egoera tamalgarria dela eta: oholza altxatu eta usteldua, perretxi-koak hormen inguruan, gangatik noznahi erortzen diren harriak, hezetasuna... Nafarroan eta Euskal Herri osoan sinbolo den eliza hau pairatzen ari den utzikeria, dena den, ez da gure herrialdean ezaguna den bakarra. Inozentzio Aierbe Aralarko San Migeleko apaizak santutegiarentzat konponbidea eskatzen duen bezala, Uxueko herria ere kezkatuta dago bertako Santa Maria La Real eliz-gazteluaren egoera dela eta. Mikel Burgi uxuetarrak, Aralarko-koek bezala, komunikabidetara jo du horren berri eman eta elizarentzat konponbidea aurkitzeko asmoz.

Nafarroa osoan hain ezagunak izanik, are harrigarriagoa da Aralarko San Migeleko eta Uxueko elizen egoera. Baina, agian horregatik, goiz edo berandu, iritsiko zaie Nafarroako Gobernuaren eskutik konponbidea. Beste hamaika elizarentzat, ordea, berandu da jada, bertan behera erori baitira, mendeetan zutik egondako harriak lurrean sakabanatuz eta desagertuz. Beste askotxo, erortzeko zorian da, laster konpondu ezean.

Aralarko San Migel, Uxue eta Erret Jauregia • San Migel oraindik zutik badago ere, tamalgarria da santutegiaren egoera. Nafarroako basilizarik zaharrenak urte luzeetan zehar pairatu behar izan du Aralarko eguraldiaren gogortasuna. Hezetasunak ezezik, utzikeria ere egin dio kalterik. San Migel egunaren bezperan, ekartz batek gangatik bota zituen zenbait harri. Sabaitik erortzen den ura biltzeko ere balde handi bat ez da nahikoa. Hori dela eta, oholza erabat useltzen ari da. Inozentzio Aierbe Aralarko apaizak uste du konponbideak Gobernutik etorri behar duela, teilatu eta oholza osoa aldatzeko. Izan ere, BIC (Interes Kulturala duen Ondarea) edo Monumentu Historiko Artistiko da Aralarko San Migelen basiliza, eta hori dela eta, Nafarroako Gobernuari dagokio konpontzea.

Uxueko eliz-gaztelua ere Interes Kulturala duen Ondarea da, eta hortaz, Nafarroako Gobernuari dagokio hor ere konponketak egitea. Eta behar ditu, Mikel Burgi uxuetarrak erran digun



Uxueko herritarrak kezkatuta daude eliz-gazteluaren egoera dela eta. Dorre nagusia dago okarren.

OSKAR MONTERO

Joseba Asiron: «Dozenaka eliza desagertu dira Nafarroan eta beste asko desagertzeko zorian daude»

Tomas Urzainki: «Ondarea babesten duen erakundeak berak eraikin bat erauztea oso larria da»

Mikel Burgi: «Orain dela 25 urte itxi zuten Uxueko eliz-gazteluko dorre nagusia arriskutsua zelako, eta oraindik ez dute konpondu»

legez. «Begibistakoa ez bada ere, egoera kaxkarrean dago eliza». Eliz-gazteluko dorreak dira okarren daudenak. «Orain dela 25 urte dorre nagusira igo-tzea debekatu zuten, arrisku-tua zelako, eta berdin jarraitzen du». Gainera, Rondako Pasioan diren arkupeak babesten zituen horma kendu zutenetik, «ipar haizeak jotzen duenean eta euria ari duenean, urez betetzen da dena». Pitzadurak ere agertu dira dagoeneko.

Eliz-gazteluaren beraren egoera ezezik, bada Mikel Burgi kezkatzen duen besterik ere: «Urtero 35.000 lagun inguru etortzen da Uxuea. Horieta 10.000 erromesak dira, eta gainerakoak turistak. Kopuru handia bada ere, ezin diegu deus erakutsi. Eta gehiago eskaintzeko aukera badago, eliz-gaztelua aprobetxatuz, eta bide batez, lanpostuak sortuz. Baina, horretarako, eliza konpondu egin behar dugu».

Ondare erlijiosoak bezala, ondare artistiko historiko-zibila ere pairatu behar izaten ditu denboraren eta utzikeriaren —edozein dela kausa— ondorioak. Iruñetik atera gabe, askok utzikeriaren adibide argitzat jo dutena aurki dezakegu, Iruñeko Erret Juaregia alegia. Tomas Urzainki, Iruñea Historikoa Babesteko Herri Ekimeneko kidearen ustez, areago, ondareari egiten zaion mesprezua- ren adierazle da Iruñeko Erret Jauregiarekin gertatu dena. Nafarroako Gobernuak, hain zuzen —Principe de Viana erakundeak, zehazki—, eraikinaren zati bat eraitsi zuen 1994. urtean, bertan Artxibo Orokorra jartzeko asmoz. Rafael Moneo arkitekto ezaguna ari da eraikin berria egiteko proiektua prestatzen.

Ikuspuntu politikotik, Nafarroako eraikinik garrantzitsuena izan da Iruñeko Erret Jauregia, Urzainkiren aburuz. Ikuspuntu artistikotik ere, 1976. urtean hasi zen Monumentu Historiko-Artistiko izendatzeko prozesua. «Horregatik, Ondarea babesten duen erakundeak berak eraikinaren zati bat botatzea oso larria da. Konponketak egin behar baziren ere, ez zegoen bertan behera botatzeko inolako beharrik», azpimarratu du Urzainkik. Legediaren aldetik ere sala daiteke Urzainkiren ustez Erret Jauregiaren eraispena: «Monumentu Historiko-Artistikoa denez, bota aurretik, gero egiten dutenaren proiektua behar da aurretik. Eta kasu honetan ez dago deus».

Dozenaka eliza arrisku bizian • Baina Aralarko San Migeleko eta Uxueko elizen edo Iruñeko Erret Jauregiaren adibideak ez dira Nafarroako ondarearen zati baten egoera agerian uzten duten bakarrak, Artearen Historian li-

Nafarroako ondare artistikoaren egoera ezbaian

zentzatu den Joseba Asironek azaldu digunez. «Dozenaka eliza erori da, beste asko erortzeko zorian dago eta beste askok zaharberitzeko premia ikaragarria du». Izen batzuk aipatzearen: Isu, Zazpe, Gurpegi, Osa, Rala eta Ezkaiko elizak bertan behera erori dira; Zarikieta, Oiz, Ezperun, Otano, Gergetiain, Besolla, Gendulain eta beste hainbat herriak erortzeko zorian dira. Eta halaxe egonen dira Erdozain edo Larunbeakoak ere aurki, laster konpontzen ez badituzte.

Azken urteetako prentsari so eginez ere, ondare artistikoak bizi duen egoeraren berri izan dezakegu. 1993an XII. mendeko etxe bat bota behar zutela Olatzen hiru etxe egiteko aipatzen zuen egunkari bateko titular batek. Iaz ere, hainbat gertakizun islatu zituzten egunkariak: Lizarrako herriarrek San Pedro eliza berritzeko eskatu zutela, Tuterako harresi musulmanen zati bat bota zutela obra bat egiten ari zirela, Eransusen behin eta berriro sartzen ari zirela lapurrak, Gesalazko Bidaurreko jauregia (XVI) eta Biguriakoa (XVII) bota nahi zituztela, eta abar.

Nafarroako ondare erlijiosoak pairatzen ari den egoera ulertzeko, despopulazioak eragin izugarria izan duela azpimarratzen du Joseba Asironek. Baina ez hori bakarrik. Erakundeen aldean ere interes falta ikaragarria dago bere aburuz. Politika sendo baten beharra ere badago Asironen ustez. «Badirudi asumitu egin dutela eraikin hauek zaintzea oso garestia dela, eta beste muturrera joan dira, elizak eta etxeak desagertzen utzi arte». Il-do berean, kalean, herritarren artean ondare babesteko kontzientzia falta dela azpimarratu du Joseba Asironek ere, «eta kontzientzia hori sortu beharra dago, Administrazioak nolabaiteko erantzuna eman diezaion». Eta ondare erlijiosoak bezala,



Iruñeko Erret Jauregiaren zati bat 1994. urtean erauzi zuen Principe de Vianak.

JOXE LACALLE

zibilak ere badu erantzun horren beharra. Iruñeko Erret Jauregia ez da egoera tamalgarrian dagoen eraikin bakarra. Asironek azaldu digunez, «urtero ari dira etxeak desagertzen». Arkitektura azken goraldi ekonomikoaren garaiko islada bada, Ihabar, Longida eta Galipentzu bezalako herrietan, adibidez, gotikoaren garaian gertatu zen azken goraldia. «Ondoren krisia pairatu zuten eta baita despopulazioa. Caro Barojak aipatzen zuenez, herri horietan dago Nafarroako gotikorik hobereena. Etxeak erortzen ari dira eta inork ez du deus egiten».

San Migel, datorren urtean

GURE herrialdean dagoen ondare artistiko eta historikoaren ugartasuna kontuan hartuz —Monumentu Historiko-Artistikoak bakarrik ehun baino gehiago dira— Artzapezpikutzako Arte eta Ondarearen arduradunak eta Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Saileko kideak bat datoz: oro har, Nafarroako ondasun artistikoaren egoera ona dela erran daiteke. Badi, hala ere, aipatu beharreko hainbat nahardura.

Jesus Maria Omeñaca Artzapezpikutzako Arte eta Ondarearen alorreko arduradunak aipatu digu lehendabizikoa. Izan ere, Omeñacaren irudiko, Nafarroako ondare artistikoaren baitan kokatzen diren eraikin eta altzariak oso ugariak izanik, «zaila da guztiak behar diren bezala edukitzea». Gehienetan, dirua da arazo nagusia.

Aipatu bezala, Uxue edo Aralarko elizen egoera da konponketak leku guztietara garaiz iristen ez diren seinalerik argiena. Eta konponketa horiek egitea, hain zuzen, Nafarroako Gobernuari dagokio. «Elizak ezin du eskua sartu, Gobernuaren eskumena baita». Aralarko San Migeleko basilizaren egoera kezkatzekoa dela uste badu ere, ezin daiteke

erran Omeñacaren ustez Gobernuak alboan utzi duenik. «Obra asko egin dira Aralarren, eta oso garestiak gainera». Hala ere, «onartu behar da elizaren estaldura jarri zutenean huts egin zutela», gaineratu du.

Kasu zehatzak bazter utzita, Nafarroako Gobernuak ondare artistikoaren eremuan jarraitzen duen politikari buruz ere bere iritzia eman digu Jesus Maria Omeñacak: «Pozik nago, baina ondarea zaintzeko eta berritzeko aurrekontu handiagoa izatea gus-tatuko litzaidake, nafar guztion ondarea baita».

Nafarroako Gobernuak ezezik, Elizak ere ahalginak egiten ditu ondarea zaintzeko Omeñac nabarmendu duenez, «baina bestelako aukerak ere ez dira baztertu behar. Aurrezki kutxek, enpresek eta abarrek ere ondarearen alde gaitatu behar harko lukete dirua».

Jesus Maria Omeñac bezala, ondarearen kopurua kontuan hartuz bere egoera ona dela uste du Javier Sanchok, Nafarroako Gobernuko Ondare Artis-


tikoaren Saileko kideak. Kontuan hartu behar da, hala ere, «oso eraikin zaharrak izanik, materialak zaharrituta daudela eta mantenimendua zaila eta garestia dela». Hori dela eta, larrialdiaren arabera zerrrenda egiten du Nafarroako Gobernuak urte bakoitzean konpondu edo zaharberritu behar diren eraikinekin. Gobernuak bi modutan hartzen du parte zeregin hauetan: zuzenean, alde batetik (eraikina Monumentu Historiko-Artistikoaren de- nean), konponketa eta bere aurrekontu guztia bere gain

hartuz; eta dirulaguntzak emanez, bestetik. Sanchok aipatu digunez, 600 milioi ingurukoa izaten da, oro har, urteroko aurrekontua. Egun, Cabanillas, Corella, Cascante edo Cintruenigoko elizak ari dira konpontzen, baita Fiteroko Monasterioa ere, besteak beste.

Aralarko San Migelen basilizari datorren urtean iritsiko zaio berritzeko txanda, Sanchok aurreratutako digunez, «bestelako larrialdirik

ez badago behintzat». Nafarroako Gobernuak elizaren estaldura aldatzeko asmoa du. Uxueko elizak, baina, gehiago itxaron behar du, oraingoz ez baitago datorren urterako proiektuen zerrendaren barruan.

Iruñeko Erret Jauregiaren zati bat eraitsi zutenean Iruñean piztutako polemikari buruz ere mintzatu zaigu Javier Sanchok: «Nafarroako Gobernuarena da eraikina, eta azken urte eta erdian Artxiboa Orokorra bertan jartzeko proiektua ari da prestatzen Rafael Moneo arkitektoa». Artxiboa berria jartzeko, eraikinarren zati bat bertan behera bota zuten makinak. Sanchok dioenez, baina, «erortzeko zorian zegoena eta baliork ez zuena besterik ez dugu bota, garrantzitsuak diren beste alde batzuei kalterik ez egiteko. Eraikina bertan jarriko denaren proiektua prest izan baino lehen eraitsi izanari buruz, bestalde, halaxe mintzatu zaigu Javier Sanchok: «Kasu guztietan ezin da proiektua lehenagotik egin. Erret Jauregiaren kasuan, eraikina ez genduen ongi ezagutzen eta neurketa zehatzik ere ez zegoen. Orain, plano zehatz-mehatzak egin ditugu, Moneok proiekturako erabili dituzan». X



Inozentzio Aierbe Aralarko apaiza, elizako oholtzari begira.

OSKAR MONTERO

Xanti Begiristain

Nafarroako Gobernuaren sosak

■ Hemen esango dudanekin ez dut inongo lankiderik inplikatu nahi, alderantziz, ekimena nirea izan da eta, beraz, erantzukizuna ere bai.

Nire asmoa ez da inor lotsaraztea baizik eta egia izenean zenbait datu eta egia plaza-ratzea.

Idazki honen mamia, Nafarroako Gobernuak Miluze euskaltegiko lokalaren alokairuaren-gatik ordaintzen duen diru kopuruan datza. Eta irakurlea berehalaxe koka dadin aferaren inguruan, segituan hasiko naiz datu objetibo batzuk ematen. Miluze euskaltegiak zazpi urte daramatza martxan Sanduzelaiko lokalean, alegia, aurtengoa bertan egiten den zazpigarren ikasturtea da. Baina harrigarriena zera da, Nafarroako Gobernuak ordaintzen dituela 28 milioi pezeta urteko alokairutan soilik (orain

arkitektonikoaren arazoa ez dagoela oso ongi konponduta. Lehendabiziko hiru urteetan ez zioten inolako aterabiderik eman afera horri. Nik, esate baterako, bi ikasturtez aritu behar izan nuen beste eskola batean, zeren eta Miluze euskaltegiko sarbidea ez baitzegoen batere ongi egokitua gurgil-aulkian sartzeko. Esan bezala, harrezkero halamoduko irtenbidea eman zioten, baina inondik ere ez da egokiena, ezta erosoena ere. Gainera, ni hasi nintzenetik behintzat, urtero-urtero esaten ari zaigu Hezkuntza Saitetik «hau izango dela azkena» eta bere lokala eskuratzear dagoela, baina oraindik ez da iritsi, eta auskalo noiz ailegatuko den!

Eta burua ongi samar duen edozein pertsonari otu ahal zaizkio honelako zalantza eta



dela zazpi urte ez dakit zenbat ordainduko zuen, baina azken urteotan behintzat horrelako kopururen bat ordaintzen ari da. Hortaz, kontua oso erraza dugu: 28 milioi (gutxi gora behera) bider zazpi urte (aurtengo ikasturtea hantxe bukatuko baita ziur aski) berdin 196 milioi pezeta xahuturik bakar-bakarrik alokairua ordaintzeko zazpi urtetan. Beste ondorio bat: Nafarroako Hezkuntza Saila bi milioi pezeta baino gehiago ari da ordaintzen alokairu horrengatik hileko.

Beraz, jaun-andreak, nire uste apalean, zenbakiak berak mintzatzen dira argi eta garbi. Niri behinik behin ez zait inolako zalantzarik geratzen, horrelako dirutza ordaintzea hileko lokal soil baten alokairuan, gehiegikeria hutsa iruditzen zait, aitzakiarik gabe. Eta are gehiago oraindik, zazpi urtetan zehar izanik.

Horri guztiari gehitu beharko genioke oztipo

galderak: Nola justifika ote dezake Nafarroako Gobernuak bere zikoizkeria IKA eta AEKren aurrean, esaterako? Hau da, AEK eta IKA erakundeak lau xentimo emateko horrenbeste kontu izaten du, eta gero bitartean, eta hainbeste urtetan gainera, Gobernuak berak ez du inolako erreparo eta lotsarik bere txakur handiak ia-ia alferrik xahutzeko.

Nola ulertu eta liseritu hori guztia? Ba, erantzuna erraz samarra da, hots, logika normala duen buru batek hori ezin du ongi ulertu ez baldin badu onartzen, behinik behin, Nafarroako Gobernuaren barruan, eta Hezkuntza Saileko arduradun batzuegan zehazkiago, egundoko axolagabekeria dagoela.

Azken zalantza bat: hainbeste milioi kobratzen ari den pertsona (edo pertsonak) horren modu errazean, ez ote da izanen Gobernuko baten baten laguna? ■

Klasiko bitxi, arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida
XV: Euzkerea
aldizkariaren
andrazko bi (eta II)

■ Tamalez arras gutxi da Pantzeska Astibiaz dakiguna. Berriki Jon Kortazarrek Santi Onaindia bekaren 1985.eko lehendabiziko dealdia irabazteko ondu saioan —Euzkerea eta Yaktntza aldizkarietako olerkigintza, Bilbo, Labayru ikastegia & Zornotzako Udala, 1995— aski ongi zioen gisaz, Astibia euskal literaturaren historian izan duen garrantzia ezta nolana baitzertzekoa izan, poeta ezezaguna izan bazen ere, eta karrikatutako lan idatzia zinez urria izan zen arren, modernitatearen agerpenean paper berezia jokatu zuelako. Mundakakoaren aburuz, hiru dira arrazoi nagusiak goien mailako olerkaria dela esateko, bakar batean laburbil litezkeenak: Astibia-ekin jaungoikoaren izaerari buruzko galdera metafisikoa agertu zen lehenbizikoz euskal letratan, 1929. urtean hain zuzen ere. Hortarako hiztegi modernista erabili zuen, Lauaxetak berak jarraiki ildotik hurranen hurran abiarazten zuena.

Pantzeska Astibia giputza bide genuen, idazkiak frogia ezin garbiago direlarik, alabainan Bilbon eman zuen bizitzaren gehiena, eta Bilbon zuen Euzkerea aldizkariaren inguruko giro literarioa, eta agian horrengatik Jon Bilbaok bilbotartzat hartu zuen. Edozein modutan ere Jon Kortazarrek ezeze baita Santi Onaindiak ere giputz jo zuen ziurtasun osoz, eta bere *Mila euskal olerki eder bilduma* ederrean islatu zuen Gipuzkoako olerkarietan batera hitz samurrekin: «*Bai goxo ta sentikor emakumearen biotza! ta goi-atsak jo ezker, zelako oldozkun bitxiak, bertsotan tinko, dizitrazten dituen engara barik! Orrela dagi aipatu onek be, edozein sorkarik tridimena arrotzen dautso, ta orduan, or dabil olerkiz mara-mara barrena ustua bearrez.*»

Astibia olerkaria zen batik bat. Onaindiak jada aipatu bilduman *Agur eguzki!* izenburuko olerkia zekarren erakusgai: «*Urtzi-oiñetan aon Eguzki / Agur tri / Eguzki garbi, eguzki ditzidari / Agur eguzki, euzkoen zūñaldari!*». Alabaina, bere lan poetikoaz landa beste zer-baiteren ere utzi zigun, berbarako Sabin Arana Goiriren antzertilan baten euskarara iraulitako itzulpena. Hauxe Jelalde ezizenez 1903.ean Bilboko Tipografia Universal delakotik argitara elkiriko *Libe: melodrama histórico original en 4 actos con 6 cuadros compuesto en euskera bizkaino* drama musikala dugu. 1471.eko apirilaren 27an jazo Mungiako gatazka oinarri du honek, jatorriz euskaraz ondu lana zela izenburuan berean ageri arren, erdal itxura aurkeztu zuen hasieratik, egileak 1902.eko martxoaren data zerraman atarikoan azaldu zuen legez: «*Cree el autor que el argumento es lo menos malo de su obra, y por ésto osa sacarlo a la luz (...)* No haya inconveniente en mostrar este libreto sólo en su versión, sino que juzgalo lo más oportuno, por la lamentable razón de que los vascos ilustrados más manejan el idioma extraño que el suyo propio (...) El texto euzkérico bizkaino daríalo a conocer, acompañándolo de fotografías de los lugares escénicos y de datos detallados sobre tipos e indumentaria, tan pronto como fuese caso de ponerlo en sofa, hecho caso omiso de sus defectos y de la crítica implacable, y previo en la columna del haber, el saldo de los miles de pesetas necesarios para abrir concurso de maestros compositores». Gure Pantzeska-rengana berriz ere itzuliz, aipatu behar da Astixeren ezizenaren-pean 1929.eko Euzkerea aldizkariaren lehendabiziko emanaldian agertu zuen hitz lauzko testua, *Ikopekua* ipuia alegia, ezagutzen dugun bakarra bestalde.

Astibia agertu zituen olerki guztiak Euzkerea argitalpenean azaldu ziren, betiere Onintze goitzenak sinaturik. Aipatu *Agur eguzki!* —1929, 1, 203— izenburukoaz gainera, beste honakoak ere baditugu: *Urdagako latsa*: «*Oi ene lats polita / Txakun txakro zolliya / Abestu bai abestu / Gogo zoragarriya*» —1929, 1, 234 or.—, *Josurt* —1930, 1, 254 or.—, *Txorriña kayolan*: «*Udaberrija alai dator / Loretxubak pztu dira / Txori polit kuttuna / Juan oi da bere sasira*» —1930, 1, 343 or.— eta *Euzko gaztedija*: «*Euzko gaztedija... / Lora dun landare maitagarri-ya / Gorri ta goriya / Ederra da benetan ire azliya*» —1930, 1, 455—. Kortazarrek gorago ekarri zalantza modernistaren inguruan Onintzek dagien galdera honela laburbiltzen du: «*Sinistu nahi eta ezin sinistu,* alabaina ezin da esan Onintzek egoera tragikoa azken muturreraino eramán zuenik, fedeak eta sinistu nahi horrek galdera existentzialista garaitzen baitute, eta hargatik modernitatea ezta guziz erabatekoa. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko zazpigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 3an jokatu.

Yuri Shulman (Bielorrusia), 2.540 ELOkoa — Ljubomir Ljubojevic (Jugoslavia), 2.600 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zf3, b6; 4.g3,Ab7; 5.Ag2,Ab4 xa; 6.bZ-d2,Ae7; 7.0-0,0-0; 8.Ge1,d5; 9.b3,c5; 10.Ab2,Zc6; 11.d5,d5; 12.Gc1,Ge8; 13.Dc2,Ze4; 14.Ze4,Zb4; 15.Zf6 xa,Af6; 16.Db1,Gc8; 17.a3,Za6; 18.c5,Zc5; 19.Ad4,Ad4; 20.Zd4,Df6; 21.eG-d1,Ze4; 22.Ae4,e4; 23.e3,h5.

Erdigunea finkatuta dagoenean, alboetatik eraso egin behar omen da.

24.Gc8,Ac8; 25.Gc1,De7; 26.b4,Ah3;

27.Gc6,Gd8; 28.Dc1,Dd7; 29.Gc3,Dg4; 30.Dc2,h4; 31.Dc1,Gd6; 32.Dc2,Dh5; 33.Db1,Eh8; 34.De1,Eh7; 35.Db1,Eg8; 36.De1.

Ikus kodroa. Zalantzen ondoren, kalte nola egin ikusi dute beltzek.

36....g3; 37.f-g3,Gf6; 38.Gc1,Gf1 xa; 39.Df1,Af1; 40.Gf1,Dd5; 41.Gf2,Dc4; 42.Zc2,Ef8; 43.Gd2,Dc3; 44.Ge2,b5; 45.Ef2,a6; 46.Eg2,Ee7; 47.Ef2,Ed6; 48.h4,Ed5; 49.Ef1,Ec4; 50.Ef2,Eb3; 51.Eg2.

Neurketa biribiltzea besterik ez da falta.

51....Dc2; 52.Gc2,Ec2; 53.h5,Ed3; 54.g4,f6.

Zuriek etsi zuten ('Ef2' jokaldiari 'Ed2' dagokio). Alboetako erasoan arriskua begi-bistan geratu zen.



Hogei urte bete ditu aurten IPES elkar-teak, gizarte gaiak sakondu eta eztabaida bultzatzeko sortutako institutuak, izenak dioten moduan. Hogei urte hauetan bazterreko izatetik ezinbesteko izatera igaro da, nazioarteko gaiak eta emakumezkoak jorrazteko era kritiko, aitzindari eta zabalari eutsi baitiote denbora honetan guztian.

Alberto Barandiaran / Iruñea


EKIALDEKO eta Mediterraneo aldeko emakumei buruz hil honetan antolatu duen hitzaldi zikloak aski ongi adierazten du IPES elkar-teak urte hauetan egin duen lana. Hau da, gaurko egoera abiapuntutzat hartuta, kontzientzia kritiko eta askea bultzatzea, eta, beti, aurrean zein duten ahaztu gabe: kultura elitista, autoritarioa eta patriarkala. Ez da harriztekoa, beraz, aurtengo ikastaroen artean nagusi izatea nazioarteko gaiak, hezkuntzakoak, gizarte zientziak eta literatura eta artea, mundu hau barrutik ulertu eta aldatzeko bideak eman ditzaketena denak.

Aste honetan jorrazten ari den aipatu zikloa da interesgarrienetakoa orain burutzen ari direnen artean. Duela lau urtetik hona, Europako Elkar-tearen eta garpenerako bidean dauden herrialdeetan lan egiten duten Gobernu Kanpoko Erakundeen laguntzarekin, alderdi haietako emakumei buruzko egoera aztertzeari ekin diote arrakasta handiz. Hego Amerikako eta hegoaldeko herrialdeetako emakumeen gaia behin baino gehiagotan jorraztu ondoren, espezializazio handixeagoa aukeratu dute oraingorako, eta arras ezberdinak izan arren arazo paretsuak dituzten bi herrialdeetara zuzendu dituzte begiak: Afrikako Mediterraneoko eta Europako ekialdekoak.

Biek daude Europatik gertu, eta bietan antzeman daitezke emakumeen eskubideen galte prozesuak. Ekialdean aurreko egitura politikoa desegin delako eta horrekin batera ziurtatuta zeuden gutxienezko baldintza batzuk —hezkuntza eta lana ziurtatuta, kasu— galzten ari direlako. Afrikako iparraldean sortzen ari den mugimendu integrista, bestalde, gogor ari da jokatzen emakumeekin, giza eskubideak ere arriskuan jarri dituelako doktrina berriak. Gai hauek jorrazteko egoera gertutik ezagutzen duten emakumeak etorri dira eta etorriko dira Iruñera; heldu den astean izango da IPESen Eva Orue kazetaria, Errusiako emakumei buruz nintzazteko, eta hilaren 31an Eva Schäfer Soziologiako doktore alemana, Ekialdeko Alemaniako emakume mugimenduaz solasatzeko. Atzo Aljeriako egoerari buruz hitz egin zuen Dalila Morsly hizkuntzalari aljeriarrak.

Elkartasuna sortzea

helburu • Elena San Julian IPESeko kidearen ustez, zikloak badu —elkar-teak antolatzen dituen ekintza guztiek bezala— bokazioa gogoan astindu eta elkartasuna sortzeko. «Bi alderdi



Javier Aisa, Silvia Fernandez eta Elena San Julian, IPESeko kideak.

JOXE LACALLE

Munduari begira

Hogei urte bete ditu IPESek, emakumeak eta nazioarteko gaiak dituela erreferentzia

hauek Europatik oso gertu daude eta guk jokatu behar dugu giza eskubideen defendatzaileen gisara, elkartasuna bultzatuz eta laguntza emanez, baina ez aurre eginez emigratioari, trabak jarritz, baizik eta laguntza emanez ekonomia horiek garatu daitezkeen.

Hitzaldi zikloarekin batera, zinemaldi txiki bat ere ikus daiteke egunotan Golem zinematokietan, eta datorren asteartean, hilak 22, Maria Miroren *Los bailes del retorno* lana ikusi ahal izango da, 20:00etatik aurrera, eta hilaren 20an 1961ko Berlinen girotutako

La Promesa lana —Margarethe Von Trotarena— eskainiko da. Halaber, azaroaren 5ean ekialdeko eta Mediterraneoko ipuinekin errezitaldia izango da.

Bestalde, hasita daude dagoneko nazioarteko gaiak buruz klasikoak den Zer gertatzen da munduan? zikloa, eta baita etikari buruzkoa ere. Osasun atalean Kiromasaia eta Kundalini yoga ere hil honen hasieratik burutzen ari da, eta bibliotekonomia, musika klasikoak ezagutzeko ikastaro praktikoa eta gaztelaniazko idazleei buruz prestatutakoa ere bidean dira.

IPESek antolatu dituen aurtengo ikastaroetan nagusi dira nazioarteko gaiak, hezkuntzakoak, gizarte zientziak eta literatura eta artea

Hasiak dira musika klasikoak ezagutzeko ikastaro praktikoa eta gaztelaniazko idazleei buruz prestatutako zikloa berezia

20 urtetako ekarpenak

IGARO diren 20 urte hauetan finkatu da tarraka-tarraka IPES elkar-tearen izakera, edo behintzat kanpora proiektatu duena: emakumezkoen eta nazioarteko gaietan ahalegin berezia jartzen duen taldearena, hain zuzen. Kutsu hori onartu arren, jenerozko gaiak inoiz ez bazterteza da elkar-tearen ustez benetan markatzen duena. «Gure iharduera guztietan», dio Elena San Julianek, «oso kontuan hartzen dugu jeneroaren gaia, eta baita Ipar-He-

goaren arteko diferentzia, gizarteak bere baitan dituen desberdintasunak... Bete ere, gai hauei pedagogiaren edo ekologiaren korronte kritikoak gehituta. Hori dela-eta, hutsunea suma daiteke gertuko gaiak planteatzerakoan, hurbileko arazoei buruz hitz egiteko orduan. IPESeko kidearen esanetan, horrelakoak antolatu direnean jendearen erantzuna ez da horren ona izan; horren lekuko literatura eta musikari buruz euskaraz antolatu nahil

izan zen hura edo komikiak egiteko ikastaroa, euskaraz hura ere, azkenean ez baitziren egin jendeak ez zuelako izenik eman. «Ez dakigu zergatik den, baina akaso jendea ez zaiolako horrenbeste interesatzen, edo hementxo gaiak ere ahaztu nahi dituelako guregana hurbiltzen denean». Gaia are zailagoa eta konplexuagoa da politika aipatzen badugu, orduan jendeak distantziak markatzen dituelako segituan. Hala ere, pedagogia edo historia behin baino gehiago-

tan jorraztu izan dutela azpimarra daiteke. 20 urte hauetako ekarpenik garrantzitsuenak? Hasiarako proiektu kultural utopiko samar hura garatu eta finkatu dela, eta ekintzak anitz eta denetarikoa —zinema, ikastaroak, bost mila aleatik gora dituen liburutekia bera— izan direla eta direla. «Gure hondarrek asmoa da hezkuntza etnik gabekoa ematea, titulurik gabekoa eta jendeart parte hartzeko aukera emango diona». Asmo honek bildu ditu bere

ingurura mota guztietako ikasle: gazte zein heldu, etxean lan egiten duten emakumeak eta profesionalak, hezkuntza ez ofiziala jasotzeko gogo bizi dutenak denak. «Denek dute komun kultura alternatiboa nahi dutela, hau da, hemen jasotzen duten informazio kritiko honek partaide sentiarazten ditu, eta gainera, ekartzen ditugun adituekin eta hemen ditugun irakasleekin, punta-puntako informazioa ezagutzeko aukera dute, besteek ematen ez dietena». X

◆ Anabel Alduntzin ◆ Karrape Irratiko esataria

«Ezusteko handia izan da denontzat»

Leitzako Karrape Irratiaren ahotsa behin-behineko isildu egin zen joan den ostiraleko saioaren ondotik, Anabel Alduntzin eta Abelina Zabaleta esatarien eskutik hiru urtez uhinen bidean izan ondoren. Larunbatean bukatu zitzaizen kontratua. Hori bazekiten, ez, ordea, irratia bertan behera geldituko zenik. Prentsaren bidez izan zuten horren berri.

Edurne Elizondo / Iruñea

ANABEL ALDUNTZIN, Abelina Zabaleta bezala, harrituta dago. «Ez genekien deus», dio irratia-
ren itxierari buruz. Udal batzordeak hartutako erabakiak entzuleenganako duen errespetu falta azpimarratu du. Berarekin mintzatu gara auzi honi buruz, eta bien iritzia, Anabel eta Abelinarena, jaso dugu bere ahotik.

■ Ostiralean Karrape Irratiaren emisioa eten egin zen. Zer dela eta?

Egia erran, ez dakigu. Gure kontratua amaitzen zela bagenekien, hiru urte igaro baitira lanean hasi ginenetik. Baina emisioa bukatzen zenik ez genekien. Ostegunean prentsari irakurri genuen, horrela jakin genuen Karrape Irratia itxiko zutela. Abisu ofiziala ostiralean bertan ailegatu zitzaigun, goizean. Alkateak Udalaren izenean ohar bat igorri zigun, Karrape denboraldi batez bere hotsa isilduko zuela erranez. Oharrak zioenez, nahi bezain ongi ez da gertatu irratia-
ren proiektua, funtzionamenduaren aldetik. Horregatik, orain arte egindakoa ikusi eta Leitzak zer irri mota nahi duen finkatu behar dago, Udalaren oharraren arabera. Eta hori da guri erran diguten guztia.

■ Irratiaren funtzionamendua ez



Anabel Alduntzin, ezkerrean, Abelina Zabaleta lankidearekin batera.

OSKAR MONTERO

dela izan espero zena aipatzen du alkatearen oharrak. Zer uste duzue zuek?

Alkatearen oharrak hori aipatzen du, baina ez du argitzen nolako funtzionamendua nahi duen. Gainera, erran beharra dago guk hiru urtez egin ditugun programazio eta irratsaio guztiak ez ditugula guk maukatik atera. Guk prestatzen ditugun programazio guztiak gero Udaleko batzorde batek onartzen ditu. Euskara Batzordeak onartutako programazioak izan dira guztiak. Eta batzorde horretan alderdi bakoitzeko kide bat dago, Herri Batasunako bat, alkatea hain zuzen, eta bera da batzordeko lehendakaria; Eusko Alkartasunako beste kide bat, eta Uhin Independentiente Leitzarrako beste bat. Urte hauetan batzordeak eskatu digun gauza bakarra emisio ordu gehiago izan da. Ordu eta erdi-

rekin hasi ginen, eta azken bolidan hiru orduko emisioa egiten genuen egunero, astelehenetik ostiralera.

■ Oso azkar gertatu dira gauzak, beraz.

Bai, baina esan behar da erabaki hau ez duela Leitzako udal batzarrak hartu, bertan irratia-
ren buruz hitz egin zuten azken aldia abuztuaren 9an izan zen, langileen kontratazioari buruz, eta mahai gainean utzi zuten Udalbatzak gaia, ikusi arte kontratuekin zer egin zitekeen. Beraz, udalbatza ez da inoiz erabaki zerbitzu hau bertan behera uztea; are gehiago, irratia-
ren azken egunean saio bat egin genuen Leitzako Udaleko alderdi bakoitzeko kide batekin, eta Eusko Alkartasuna eta Union Independentiente Leitzarrako bi kidek, hain zuzen, irratia-
ren bertan erran zuten ez zutela irratia itxiko zuten berririk, prentsaren bitartez jakin zutela. Guk argi utzi nahi dugu gauza bat dela gure lan egoera, eta beste bat, oso ezberdina, herriari zerbitzu bat kentzea. Entzuleenganako errespetu gutxi izan dutela iruditzen zaigu.

■ Nork hartu du orduan irratia itxeko erabakia?

Alkateak erran zuenez, Udal Batzorde Informatiboan hartu zuten. Baina udaletxean ez dago erabaki horren aktarik, eta guk ez dugu jaso. Beraz, ez dakigu zehazki irratia itxeko erabakia nondik edo nola hartu den. Horregatik antolatua genuen ostiraleko mahaingurua Udaleko alderdi-
dako kideekin, guri azalpenak emateko baino gehiago entzuleei azaltzeko, irratia Udalaren zerbitzua baita. Gu, egia erran, berdin gelditu ginen. Ez du zentzu handirik.

■ Entzuleak aipatzen dituzula, zer dio herriak Karrape Irratiaren itxierari buruz?

Beno, guk denek zer pentsatzen duten ez dakigu. Hala ere, mahaingurua egin genuenean, azken egunean, entzuleen hainbat dei jaso genituen animoak eman ez. Beti bezala, Udaleko kideei galderak egiteko aukera eman genien entzuleei, eta erran beharra dago, bat izan ezik, jaso genituen dei guztiak eskerrak emateko eta animoak emateko izan zirela. Denaren, oro har, nik uste dut

ezusteko handia izan dela guztientzat irratia itxiko zutela jakitea.

■ Irratia betiko itxiko dutela uste al duzue?

Alkateak erran duenez, ez, «ez du loak hartu nahi», guri bidali ziguten oharrak aipatzen zuten bezala. Alderdi bakoitzak zer irratia mota nahi duen aztertu behar omen du orain, baina noiz zabalduko duten berriro, horri buruz ez du deus erran.

■ Hiru urteko ibilbidea egin duzue Karrape Irratian. Zer-nolako esperientzia izan da? Nola gogoratzen dituzue hasierako unek?

Oso esperientzia polita izan da guretzat. Lan honek, gainera, gauza asko ikasteko aukera eman digu, jende askorekin hitz egin behar duzulo. Herriko baserri eta etxe asko bisitatu ditugu, eta alde horretatik esperientzia zoragarria izan da. Gainera, laguntzaile asko izan ditugu alboan, eta guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak. Eta hasierari dagokionez, lan guztietan bezala, zaila izan zen, baina pixkanaka-pixkanaka ikasi dugu. X

s o s l a i a

Anabel Alduntzin, Abelina Zabaletarekin batera, irratiko esataria izan da hiru urtez. Leitzako bi gazteak pozik dira egindako lanarekin, nahiz eta azken egunetan gertatutakoak asko harritu dituen.

Pozik gogoratzen ditu hasierako unek. Iruñerriko Euskalerrira Irratian, Elizondoko Xorroxinen eta Garaziko Irulegin egin zituzten lehen praktikak, Karrapen hasteko eguna ailegatu zen arte.

Anabel Alduntzinek ez zuen irratia-
ren mundua ezagutzen Karrapera ailegatu aurretik. «Nik ez nuen zerikusirik honekin, Zuzenbidea ikasi nuen». Baina orain, bertan jarraitzeko gogo ez zaio falta. Abelina Zabaleta lankidea, herriz, bi urtez izan zen Lekunberriko Aralar Irratian Karrapen hasi baino lehen.

«Leitzako udalbatzak ez du inoiz Karrape Irratia bertan behera uzteko erabakia hartu»

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
33

GAUR:

Belatzak

Aurelia Arkotx3

Pasatu ziren belatzak
Ikusi ere enituenak
Haien karrasi kiretsak
Konprendi gabe utziak

